| Charlas, videoforum y cursos de hasta 4 horas | Ponente remunerado, hasta 120 euros o 60 euros/hora<br>Gratificación/obsequio ponente, hasta 60 euros<br>Otros gastos, hasta 100 euros |
| Grupos de encuentro o autoayuda | Hasta 50 euros/h. Máximo 4.400 euros |
| Intercambios inter-asociativos (dentro del THA) | Hasta 80 por ciento de la actividad (excepto comida)<br>Hasta 75 por ciento del transporte colectivo |
| Intercambios inter-asociativos (fuera del THA) | Hasta 50 por ciento de la actividad (excepto comida) |
| Asistencia Seminarios/Congreso (dentro THA) | Dietas comida: 15 euros por persona/día<br>Máximo 2 personas y 2 eventos por año |
| Asistencia Seminarios/Congreso (fuera de THA) | Inscripción, alojamiento/dietas: máximo 120 euros/persona Máx. 1 persona y 2 eventos por año |

| Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak: | Diruz lagundu daitezkeen gehienezko aurrekontuak |
|---|---|
| Boluntario eta erabiltzaile topaketak | Gehienez topaketa bat urtean<br>Jarduera gastuaren ehuneko 100, gehienez ere janaria izan ezik (gehienez ere 7 euro pertsonako eta 310 euro ekitaldiko) |
| Pertsonei zuzenean laguntzeko programak | |
| Mendetasun egoeran dauden adinekoak | Gehienez ere 4.000 euro programako, balioespen teknikoak zer dioen |
| Inprenta/iragarkiak | Jarduera gastuaren ehuneko 100 gehienez ere landa eremuan eta 600 euro gainerakoan, gehienez ere 3.750 |
| Beste programa edo jarduera batzuk | Gehienez ere 4.000 euro programako, balioespen teknikoak zer dioen |
| Txangoak | Gehienez ere 375 euro txangoko. Gehienez ere hiru txango |
| Administrazio gastuak eta kudeaketa oro har | Gehienez, diruz lagundutako zenbateko osoaren ehuneko 15 (beti ere mantentze deialdian eman ez bada) |

Programa guztiek eskabidean aurkeztu beharko dituzte helburua, gaiak, zein herritarri zuzenduko zaion, horien iraupena, egin beharreko gastu bakoitzaren xehakapena.

HAMAHIRUGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEA.

Hamargarren oinarri arauetako irizpideak ezartzetik lortutako puntu guztiak batuz gero, lortuko den kopuruari dirulaguntzetarako gehieneko ehunekoa esleituko zaio, ondoko taula honen arabera:

| PUNTUAK | DIRULAGUNTZA GEHIENEZ |
|---|---:|
| gehienez, 50 puntu | ehuneko 0. |
| 51-59 puntu | ehuneko 60. |
| 60-69 puntu | ehuneko 70. |
| 70-79 puntu | ehuneko 80. |
| 80-89 puntu | ehuneko 90. |
| 90-100 puntu | ehuneko 100. |

Ehuneko horiek zehaztuko dute dirulaguntza zenbat izango den, hamabigarren oinarria ezarri eta gero lortutako kopuruetan, gehienez ere diruz lagundu daitezkeenetan, ezarri ondoren.

Eskaera kopurua eta eman beharreko dirulaguntzak direla-eta dirulaguntzetarako ezarritako kopuruak gutxitu beharko balira, aurreko eskalan adierazitako ehuneko guztiak neurri berean gutxituko lirateke.

HAMALAUGARRENA.- LANKIDETZA KONPROMISOA

14.1. Deialdi honetako laguntzak jasotzeak zera dakar, erakunde onuradunak foru erakundearekin lankidetzan aritu beharra.

14.2. Foru erakundeak diruz lagunduko den zerbitzu, programa edo jardueraren berezitasunei begirunea gordetzea izango da lankidetza horren oinarria.

HAMABOSGARRENA.- ESKAERAK AZTERTZEA ETA EBAZPENA EMATEA

15.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du ea eskaera horiek lagunduak izan daitezen eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun izango ditu eskas diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eskas edo eskatzen diren agiriak aurkezten ez badira, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du, horretarako ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak –4/99 Legeak emandako idazkeraz– 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eska diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako dirulaguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espedientea osatzeko eta emandako datuak egiaztatzeko beharrezko izan litezkeen agiriak edo argibideak ere eska diezazkioke.

| Conceptos subvencionables | Presupuestos máximos subvencionables |
|---|---|
| Encuentros voluntariado, usuarios/as | Máximo un encuentro anual<br>Hasta 100 por ciento del gasto de actividad<br>Excepto comida (máximo 7 euros/persona y 310e por actuación) |
| Programas de atención directa a personas | |
| Mayores dependientes | Hasta 4000 euros por programa, según valoración técnica |
| Imprenta/publicidad | Hasta 100 euros por actividad en la zona rural y 600 euros en el resto, máximo 3.750 |
| Otros programas/actividades | Hasta 4000 euros por programa, según valoración técnica |
| Excursiones | Hasta un máximo de 375 euros por excursión Máximo de tres excursiones |
| Gastos Administración y gestión general | Hasta 15 por ciento de la cantidad subvencionada total (siempre que no se haya concedido en la convocatoria de mantenimiento) |

Todos los programas deberán indicar en la solicitud los objetivos, la temática, población a la que van dirigidos, duración de los mismos, así como desglose de cada uno de los gastos a realizar.

DECIMOTERCERA.- FIJACIÓN DE LA CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN.

La suma de puntos obtenida de la aplicación de los criterios de la base décima arrojará una cantidad de puntos a la que se asociará un porcentaje máximo de subvención de acuerdo al cuadro siguiente

| NÚMERO DE PUNTOS | MÁXIMO DE SUBVENCIÓN |
|---|---:|
| Hasta 50 puntos | 0 por ciento |
| Entre 51 y 59 puntos | 60 por ciento |
| Entre 60 y 69 puntos | 70 por ciento |
| Entre 70 y 79 puntos | 80 por ciento |
| Entre 80 y 89 puntos | 90 por ciento |
| Entre 90 y 100 puntos | 100 por ciento |

Dichos porcentajes aplicados sobre los presupuestos máximos subvencionables surgidos de la aplicación de la base duodécima, determinarán la cuantía final de la subvención.

Si en razón del número de solicitudes y los importes a percibir fuera necesario minorar las cuantías de subvención fijadas, se procederá a minorar todos los porcentajes establecidos en la escala anteriormente descrita, en la misma proporción.

DECIMOCUARTA.- COMPROMISO DE COLABORACIÓN.

14.1. La concesión de ayudas de esta convocatoria conlleva el compromiso por parte de la entidad beneficiaria de colaborar con el Instituto Foral.

14.2. Dicha colaboración se establecerá siempre partiendo del respeto por parte del Instituto a las peculiaridades del servicio, programa o actividad para la que se solicita ayuda.

DÉCIMOQUINTA.- INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN DE LAS SOLICITUDES.

15.1. El Instituto Foral de Bienestar Social comprobará, respecto de las solicitudes formuladas en tiempo y forma, si cumplen todos y cada uno de los requisitos y condiciones exigidas para el otorgamiento de las ayudas, requiriendo, en caso contrario, a quien haya solicitado la subvención para que en el plazo de diez días naturales aporte los datos y documentación precisa con apercibimiento de que, si así no lo hiciere, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por Ley 4/1999.

Lo dispuesto en el párrafo anterior se entiende sin perjuicio del derecho que corresponde al Instituto Foral de Bienestar Social a solicitar informes de los Organismos que considere oportunos respecto de las ayudas solicitadas y la entidad peticionaria, así como a reclamar de esta última los datos, documentos o aclaraciones que se estimen precisos para completar el expediente y comprobar los datos especificados por la entidad peticionaria.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa izango da prozedura izapidetzeko eta aztertzeko organo eskuduna.

Era berean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoak txosten teknikoa egingo du, eta bertan dirulaguntzaren xede diren jardunak zenbateraino egokitzen zaizkion deialdiaren helburuei jasoko du.

15.2. Zuzendariordetza tekniko bakoitzak, Arloko Programen koordinatzailearekin eta Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin batera, eskaerak balioesteko batzorde lanak egingo ditu. Esparru bakoitzeko langile espezialistek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin zenbat diru dagoen kontuan hartu eta gero, batzorde horrek ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaso beharko du, baita ezestea proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere.

15.3. Ebazpenek behar bezala arrazoituta egon beharko dute, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariak emango ditu. Horretarako, hiru hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Aintzat hartutako kontzeptu bakoitzeko gehienez emango den dirulaguntza zenbatekoa den zehaztuko du ebazpenak. Eskatzaileari ebazpenaren berri emango zaio, horren aurka aurkez ditzakeen errekurtsoak adieraziz.

Epea igarota, ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzari ezezkoa eman zaiola ulertuko da, HAJ-APEren Legeak –4/1999 Legeak emandako idazkeraz– 44.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, legez eman egin behar da ebazpena.

Ebazpen horien aurka, berariazkoak zein ustezkoak, aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, HAJ-APEren legearen 116. eta 117. artikuluek ezartzen duten epean.

15.4. Deialdi honetako dirulaguntzetarako ezarri diren betebehar guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, dirulaguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi honen babespean dirulaguntza eman izanak ez du behartzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko programei nahitaez dirulaguntzak ematera.

HAMASEIGARRENA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ALDATZEA

Salbuespenez, dirulaguntza jaso duten erakundeek esleipen ebazpena aldatzea eska dezakete, diruz lagundutako jarduera garatzeko zailtasunak badaude edo horri nolabait eragiten dioten arrazoiak agertu badira.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz bidali beharko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari dirulaguntzaren erabilera aldatzeko arrazoia, 2010eko azaroaren 30a baino lehen. Aldaketa hori onartu ala ez erabakitzeko, deialdi honetan dirulaguntzak emateko erabili diren irizpideak hartuko dira kontuan, eta hori ebazpen bidez onartu edo ukatuko da.

Zuzendariordetza Teknikoak aztertuko ditu aldatze eskaerak, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntzak aldatzeko proposamena egingo du. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariak ebatziko ditu aldaketok.

HAMAZAZPIGARRENA- ORDAINTZEKO MODUA

17.1. Dirulaguntzen izaera eta ebazpenerako aurreikusitako data kontuan hartuta, emandako dirulaguntza honela ordainduko da:

• Emandako dirulaguntzaren ehuneko 50 aldeko ebazpena eman ondorengo hogeita hamar egunetan ordainduko da.

• Dirulaguntzaren beste ehuneko 20, 2010eko uztailean ordainduko da.

• Dirulaguntzaren beste ehuneko 20, 2010eko irailean ordainduko da.

El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento es la Subdirección Técnica del Área de Intervención Social del Instituto Foral de Bienestar Social.

La Subdirección Técnica del Área de Intervención Social del Instituto Foral de Bienestar Social, recabará un informe técnico sobre la adecuación a los objetivos de la convocatoria de las actuaciones para las que se solicita la ayuda.

15.2. La Subdirección Técnica junto a la Coordinadora de Programas Sectoriales y a la Dirección de Política Social y Servicios Sociales, se constituyen en una única comisión de valoración de las solicitudes. Una vez sean estudiados los informes realizados por el personal técnico especializado del Área y se tenga en cuenta los créditos disponibles, esta comisión formulará la oportuna propuesta de resolución. Dicha propuesta deberá expresar la relación de entidades solicitantes para las que se propone la concesión de una subvención y su cuantía, así como aquellas para las que se propone denegación y sus motivos.

15.3. Las resoluciones, que deberán estar suficientemente motivadas, se dictarán por la Presidencia del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social en el plazo máximo de tres meses contados a partir de la fecha de terminación del plazo de presentación de solicitudes, contendrán las cuantías máximas a subvencionar en cada uno de los conceptos que hayan sido estimados y serán notificadas a las personas solicitantes especificando los recursos que puedan interponerse contra las mismas.

Transcurrido el plazo máximo para resolver, sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá que es desestimatoria de la concesión de subvención, de acuerdo con lo previsto en el artículo 44.1 de la LRJ-PAC, en su redacción dada por la Ley 4/1999 sin que ello exima de la obligación legal de resolver.

Contra estas resoluciones, tanto si son expresas como presuntas, cabe interponer recurso potestativo de reposición en la forma y plazos previstos en los artículos 116 y 117 de la LRJ-PAC.

15.4. El cumplimiento de todos los requisitos mencionados para las ayudas previstas en esta convocatoria no otorga, por sí sólo, derecho a la adjudicación de las mismas.

La concesión de una subvención al amparo de la presente convocatoria no comporta obligación alguna por parte del Instituto Foral de Bienestar Social de adjudicar subvenciones en los siguientes ejercicios económicos para programas similares.

DECIMOSEXTA.- MODIFICACIONES DE LAS SUBVENCIONES OTORGADAS.

Las entidades subvencionadas podrán solicitar, con carácter excepcional modificaciones al acuerdo de concesión basadas en la aparición de circunstancias que alteren o dificulten el desarrollo de la actuación subvencionada.

Para ello, la entidad solicitante deberá fundamentar por escrito al Instituto Foral de Bienestar Social dicha solicitud de cambio de destino o desvío, antes de 30 de noviembre del año 2010. Dicho desvío o cambio de destino podrá aceptarse con base en los criterios de subvención aplicados en la presente convocatoria, dictándose al efecto la oportuna resolución.

La Subdirección Técnica estudiará las solicitudes de modificación y, en su caso, elevará una propuesta de modificación de las subvenciones otorgadas. La Presidencia del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social resolverá dichas modificaciones.

DECIMOSÉPTIMA.- FORMA DE PAGO.

17.1. El pago de las ayudas, teniendo en cuenta la naturaleza de las mismas y la previsible fecha de resolución, se realizará de la forma siguiente:

• El 50 por ciento del importe concedido se abonará dentro de los treinta días siguientes a la fecha de la resolución estimatoria.

• El 20 por ciento del importe concedido se abonará durante el mes de julio de 2010.

• El 20 por ciento del importe concedido se abonará durante el mes de septiembre de 2010.

• Geratzen den ehuneko 10a, berriz, aurkeztu beharreko justifikazio eta likidazioak aurkeztu ondoren.

17.2. Aldez aurretik edo kontura ordaintzea posible izango da, foru arauetan ezarritakoaren arabera.

Erakundeak aurkeztutako ordain frogagiriek emakida erabakian emandako eta onartutako zenbatekoak egiten duena baino gutxiago zuritzen badute, dirulaguntza urritu egingo da aurkeztutako ordain frogagiriak zuritutakoan oinarrituta. Urritze horietarako ez dago beste ebazpenik eman beharrik.

HEMEZORTZIGARRENA.- GASTUAK JUSTIFIKATZEA

18.1. Dirulaguntzaren bat jasotzen duten erakundeek 2010eko abenduaren 31 aurretik egindako gastuen ordainagiriak eta likidazioak 2011ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztuko dituzte.

18.2. Diruz lagundutako programa edo jardueren gastu eta sarreren egiaztagiriak, ondorengo hauek izango dira, gutxienez:

1. 2010eko ekitaldian diruz lagundutako ekintza bakoitzaren azalpen-memoria.

2. Diruz lagundutako jarduera bakoitzari buruzko gastuen eta diru sarreren zerrenda.

3. Diruz lagundutako jarduera bakoitzaren 120 euro edo gehiagoko faktura konpultsatuak (jatorrizkoak edo fotokopiak), bai eta ordainketa egin izanaren egiaztagiria, hartu-agiri bidez, bankuko kopia bidez edo faktura bidez, enpresa hornitzailearen izenpea eta zigilua duela. Hirugarrenei (hizlariak, irakasleak…) ordaindutakoek PFEZ dela-eta egindako atxikipenak jasotako dituzte hala behar izanez gero. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak konpultsatzen badu, fotokopiak jatorrizkoekin batera aurkeztu behar dira.

4. Gainera, langileak kontratatuta edukiz gero, honako hauek ere aurkeztu behar dituzte:

• Langileen zerrendaren egiaztagiria, behar bezala sinatuta.

• 2010eko azaroari (edo ekitaldi horretan lan egindako azken hilabeteari) dagozkion TC-1 eta TC-2 likidazioen fotokopia konpultsatuak, bankuak zigilatuta.

• Arabako Foru Aldundiarentzako PFEZren likidazio aurkeztuaren jatorrizko agiria edo fotokopia konpultsatua, laugarren hiruhilekoarena eta azken laburpenarena (190 eredua), soldatapeko langileen zerrenda duela. (Agiri horiek urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira).

• Beste gizarte gasturik balego, egiaztagirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak konpultsatzen badu, fotokopiak jatorrizkoekin batera aurkeztu behar dira.

5. Emandako dirulaguntzari esker burututako jarduerarako egindako egitarauen, argitalpenen, iragarki kartelen eta irudi eta idazki guztien ale bana.

18.3. Justifikatzeko epea amaituta, erakunde onuradunak agiriak aurkeztu ez baditu, 10 egun gehiago emango zaizkio horiek aurkez ditzan; era berean, jakinaraziko zaio epe hori igaro ondoren oraindik aurkeztu ez badu, horrek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko Foru Arauak eta deialdi honetako oinarriek ezarritako ondorioak ekarriko dizkiola.

18.4. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du, egoki irizten dion moduan, eta diruz lagundutako ekintza eta zerbitzuen ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitatea neurtu ahal izango ditu.

HEMERETZIGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

19.1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek betebehar hauek dituzte, deialdi honetan zein Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko Foru Arauan jasotakoez gain:

• El 10 por ciento restante se abonará tras la presentación de las justificaciones y liquidaciones correspondientes.

17.2. Se establece así mismo la posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta conforme a lo establecido en la Norma Foral correspondiente.

En el caso de que la justificación presentada por la entidad, sea inferior a las cantidades concedidas y aprobadas en el acuerdo de concesión, se procederá a minorar la subvención de forma proporcional a la justificación válida presentada, sin necesidad de dictar nueva resolución al efecto.

DECIMOCTAVA.- JUSTIFICACIONES DE LOS GASTOS.

18.1. Las entidades perceptoras de ayudas están obligadas a presentar los justificantes de gasto y la liquidación con fecha límite de las facturas el 31 de diciembre del 2010 y la fecha límite para su presentación el 15 de enero de 2011.

18.2. La justificación de los gastos e ingresos de cada uno de los programas o actividades subvencionadas incluirán como mínimo la siguiente documentación:

1. Memoria descriptiva de cada una de las actividades subvencionadas correspondientes al ejercicio 2010.

2. Relación de gastos e ingresos habidos, de cada una de las actividades subvencionadas.

3. Originales o fotocopias compulsadas de las facturas iguales o superiores a 120,00 euros correspondientes a cada actividad subvencionada, así como certificación de pago mediante recibí, copia bancaria o factura con firma y sello de la empresa proveedora. Las facturaciones a terceros (ponentes, profesorado...), deberán reflejar la realización de las correspondientes retenciones de IRPF, en caso de ser necesario. En el supuesto de que la compulsa sea realizada por el IFBS, las fotocopias deberán ser entregadas junto a sus originales.

4. Además, si existe personal contratado presentarán:

• Certificado del listado del personal existente debidamente firmado.

• Fotocopias compulsadas de las liquidaciones TC1 y TC2, sellados por la entidad bancaria, relativas a la cotización del personal y correspondientes al mes de noviembre de 2010 (o último mes trabajado en dicho ejercicio).

• Originales o fotocopias compulsadas de la liquidación de IRPF presentada a Diputación Foral de Álava, Cuarto Trimestre y Resumen Final (Mod.190) que incluya la relación de personal asalariado de la entidad. (Estos documentos se presentarán antes del 30 de enero)

• Originales o fotocopias compulsadas de justificantes de otros gastos sociales, si los hubiere.

En el caso de que la compulsa sea realizada por el IFBS, las fotocopias deberán ser entregadas junto a sus originales.

5. Un ejemplar de los Programas, Publicaciones, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica y escrita haya sido elaborada para la actividad objeto de la subvención.

18.3. Si, presentada la documentación dentro del plazo referenciado, la entidad beneficiaria no hubiese presentado los correspondientes documentos, se le requerirá para que los aporte en el plazo de 10 días naturales, comunicándole que, transcurrido el mismo sin atender el requerimiento se tendrá por incumplida la obligación de justificar, con las consecuencias previstas en la Norma Foral de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava y Bases de esta convocatoria.

18.4. Por el Instituto Foral de Bienestar Social podrá comprobarse, en la forma que en cada caso se estime oportuno, el destino y aplicación de las ayudas concedidas, así como evaluar las características, eficacia y nivel de calidad de los servicios o actividades subvencionadas.

DECIMONOVENA.- OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS.

19.1. Son obligaciones de las Entidades beneficiarias de las subvenciones, además de las establecidas en esta Convocatoria y en la Normativa aplicable a subvenciones y transferencias del Territorio Histórico de Álava, las siguientes:

- Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartu zen jarduera burutzea.

- Dirulaguntza ematen duen erakundearen —edo, hala dagokionean, erakunde laguntzailearen— aurrean, jarduera egiten ari dela edo hura egiteko jarrera hartu dela egiaztatu beharko dute, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntzaz gozatzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen eta mantentzen direla ere.

- Dirulaguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartuko dituzte, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariorako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.

- Edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk, Espainiakoak nahiz nazioartekoak, xede berarekin emandako dirulaguntzen edo laguntzen berri ematea erakunde emaileari, edo, hala dagokionean, erakunde laguntzaileari. Orobat, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri emango diote erakunde emaileari.

- Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste edozein organo eskudunek eskatutako edozein informazio ematea.

- Diruz lagundutako jarduerak hedatu, kaleratu edo, kasuan kasu, argitaratzen direnean, berariaz adierazi beharko da jarduera horiek Arabako Foru Aldundiaren babespean egin direla.

19.2. Oinarri hauetan nahiz indarrean dagoen legerian onartutako edozein baldintza ez betetzeak diru-laguntza etetea eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du.

19.3. Datu faltsuak eman edo datuak ezkutatuz gero, eta emandako dirulaguntzak emate akordioan jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta Arabako dirulaguntza eta transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauaren 13. artikuluan adierazitako kasuekin aldiberekotasuna gertatuz gero ere, emandako dirulaguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala dagokionean, ordaindutako dirulaguntzak itzuli beharko dira. Gainera, arrazoi horiengatik eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.

HOGEIGARRENA.- INDARRALDIA

Deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean. Dena den, diruz lagundutako jarduerak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera jarri ahal izango dira abian.

HOGEITA BATGARRENA.- ERREKURTSOAK

Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran– ezarritako egoera eta eretan.

HOGEITA BIGARRENA.- DIRULAGUNTZAK ALDATZEA EDO GALTZEA

Dirulaguntzak emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta, edonola ere, edozein erakundek gauza bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, aldatu egin daiteke laguntza emateko ebazpena. Hala gertatuz gero, beste ebazpen bat eman beharko da berariaz horretarako.

HOGEITA HIRUGARRENA- AZKEN KLAUSULA

Deialdi honetako oinarriak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen dutenaren menpe egongo dira erabat.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 2a.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, Mª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.

- Realizar la actuación que fundamenta la concesión de la subvención.

- Acreditar ante la Entidad concedente o, en su caso, la Entidad colaboradora la realización de las actuaciones así como el cumplimiento y mantenimiento de los requisitos o condiciones que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

- Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la Entidad concedente, a las de control económico-financiero y de gestión que se establezcan por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava y a las previstas en la legislación del Tribunal de Cuentas u otros órganos competentes.

- Comunicar a la Entidad Concedente o a la Entidad Colaboradora, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o Entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales, así como las alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención.

- Facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, el Tribunal Vasco de Cuentas u otros órganos competentes.

- Deberán hacer constar expresamente el patrocinio de la Diputación Foral de Álava, en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas.

19.2. El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones previstas en las presentes bases, así como de las que establezca la legislación vigente, dará lugar a la extinción de la subvención reconocida, con obligación de reintegrar las cantidades que hubieran sido abonadas hasta la fecha.

19.3. La falsedad u ocultación de datos y la utilización de las subvenciones concedidas para fines distintos de los previstos en el acuerdo de otorgamiento así como la concurrencia en los casos señalados en el articulo 13 de la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava, implicará, sin perjuicio de las responsabilidades que cupiese exigir por tal motivo, la suspensión del libramiento de las subvenciones concedidas y, en su caso, la exigencia de reintegro de las subvenciones abonadas.

VIGÉSIMA.- VIGENCIA

La presente convocatoria entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA, sin perjuicio de que las actuaciones subvencionables puedan desarrollarse desde el 1 de enero de 2010.

VIGÉSIMOPRIMERA.- RECURSOS

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

VIGÉSIMOSEGUNDA.- MODIFICACIÓN O PÉRDIDA DE LA SUBVENCIÓN.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas concedidas por cualquier entidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, mediante una nueva que se dicte al efecto.

VIGÉSIMOTERCERA.- CLÁUSULA FINAL.

Las Bases de la presente convocatoria quedarán condicionadas en su totalidad a lo que establezca la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2010.– La Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales y Presidenta del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, Mª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.